

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5541

EBAZPENA, 2011ko urriaren 21ekoa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, euskal autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola 2011» sariko Epaimahaiaren ebazpenaren berri ematen duena.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak Euskal Autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola-2011» sarirako deia egin zuen 2011ko maiatzaren 5eko ebazpenaren bidez (EHAA, 91. zenbakia, maiatzaren 16koa). Horrekin bat etorriz, eta Epaimahaiak bildu eta ebazpena eman ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

«Jesús María Leizaola-2011» sariaren epaimahaiak emandako ebazpenaren berri ematea. Honako hau da:

1.– «Jesús María Leizaola-2011» saria Susana Serrano Gazteluurrutia andereak aurkeztutako «El concierto económico vasco ante el juez comunitario: la judicialización de las normas forales tributarias en el ámbito jurídico europeo. Situación vigente (ayudas del Estado) y perspectivas de futuro» lanari ematea.

2.– «Jesús María Leizaola-2011» sariaren akzesita Jone Martínez Palacios andereak aurkeztutako «Sozio-ingurumen gatazkak eta sozio-ingurumen demokrazia. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Kataluniako Autonomia Erkidegoen arteko ikuspegi konparatu bat» lanari ematea.

3.– Ebazpen hori interesatuei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 21a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.